





2. OTAMOTX

ALTUERA MIN.: 208 m.
 ALTUERA MAX.: 434 m.
 DESNIBELA: ▼ 227 m. ▲ 233 m.
 DISTANTZIA: 5,85 km.
 DENBORA: 1 h 30 min-2 ordu.
 ZAILTASUNA: erroza



2. OTAMOTX

➤➤ ASTIGARRAGAKO ATSEDENLEKUA ~ ALDARRETAZPIKOA NEKAZALTURISMOA
 ALDAKIO BASERRIA ~ ASTIGARRAGAKO ATSEDENLEKUA



- | | | | | | |
|----------------|--------------|---------|--------------------------|-------------|---------|
| Aparkalekua | Piknik | Lizarra | Nekazalturismoa/baserria | Hesia | Iturria |
| Hasiera puntua | Bidegurutzea | Zubia | Pista/Bidezidorra | Atsedenekua | Amaiera |

TOPOGIDA

P. Aparkalekua. Joxemiel Barandiaran eskola, Gabrielenea (egun haur-eskola) eta Auzaeta kiroldegiko aparkalekuan utziko dugu autoa, eta errepidea gurutzatu eta ezkerrera eginez zubiraino hurbilduko gara, beste aldean den atsedenekuan emateko hasiera ibilbideari.

1. Hasiera puntua. Astigarragako atsedenekutik abiatuko gara herri-bidea iparralderanzko norabidean hartuz.

2. Bidezidorra. Joxemiel Barandiaran eskola erreka bestalde parean dugula, ezkerrean bidezidor bat topatuko dugu, berau jarraituz.

3. Gora. Bidezidorra amaitzean bide zabalago batera aterako gara, ezkerrera eta gora eginez.

4. Altzani. Eskuinean parez pare zelaian dagoen zuhaitz handira bertaratu gara. Lizarra da zuhaitz hau.

5. Lizarra. Hesia igaro eta mendebalderantz gora igoko gara pista atera arte.

6. Pista ezkerrean. Ezkerrean gora pista jarraitu. Eskuinean behera Otelarre etxea ikusiko dugu, baina guk ezkerrean **eta gora egin behar dugu. Pistan gora jarraituz alde batera utziko ditugu Urdangarin eta Garagartza baserriak ere.**

7. Iturria. Sabino Auzmendiren bertsoek (94/12/05) iturri honetako uraren kalitatea bermatzen dute. Ur honetatik edan ondoren aurrera jarrai dezakegu.

8. Nekazalturismoa. Bidean aurrera goazela, Aldarretazpikoa nekazalturismoa utziko dugu ezkerrean.

9. Pista ez. Pista alde batera utziz ezkerrean dugun pinudiko bidexkan barneratuko gara. Beherakoan, Aldakio baserria bistaratu aurretik hesi bat igaro beharko dugu.

10. Belardia. Eskuinera jaitsiz belardia inguratu eta Aldakio ataritik pasa gabe, pista gurutzatu eta beheko fruta-arbolen artean barneratuko gara, baserria ezkerrean utziz.

11. Ezkerrean. Ezkerreko bidea (eskuinekoa Lizarburura) hartuko dugu Dorronsoro baserriera jaisteko, eta berehala (metro gutxira) eskuinekoa, pinudian gora eginez.

12. Dorronsoro baserria. Baserri honen ataritik igaro eta berehala ezkerrean eginez artadiko bidezidorrean barneratuko gara.

13. Pista. Pista jarraituko dugu beheraka. Musaga erreka dugu alboan.

14. Astigarragako zubia. Migel Imaz Apalategi kontratista entzutetsuak egindako zubi hau zeharkatu gabe herri-bidea jarraituko dugu San Martin aldera.

=1. Amaiera-puntua. Astigarragako atsedenekuan emango diogu amaiera ibilbideari, ibilbideak utzitako nekeak gainetik kentzeko leku aproposa.

GUNE INTERESGARRIAK



ASTIGARRAGAKO ATSEDENLEKUA

Atsedenaldira bat egiteko leku aparta herrian bertan, bere mahai, iturri, jolastoki eta guzti. Herri-bidea bertatik igarotzen da, esku artean duguna bezalako ibilaldiak hasteko leku aproposa delarik.



ALDARRETAZPIKOA NEKAZALTURISMOA

Baserriko bizitza gertutik ezagutzea ahalbidetzen die nekazalturismo honek bezeroei. Zortzi lagunentzako tokia, sukaldean sartzeko eskubide eta guzti. XVII. Mendearen bigarren erditik aurrera eraikia, baserritik bizitzen jarraitzen dute bertakoek. San Martingo herri-gunean hartzen da bertaratzeko pista, 2 km-ren burura kokatzen delarik baserria. Telefonoa: 943 18 03 66.



ASTIGARRAGAKO ZUBIA

Migel Imaz Apalategi kontratista entzutetsuak zubi honen eraikuntzan parte hartu zuen. 1921ean amaitu zen eraikuntza-lana, egitura dotoreko zubia utziz: alde banatan hormigoizko bi bola (egun alde batean bat falta), eta erdiko euskarriaren gainean animalia zangoak eta gizaki baten aurpegiaren irudia (1953ko uholdeek eraman zuten atzamar bat). Migel Imaz Apalategiren lan garrantzitsuenen artean, Maria Cristina Hotela, Victoria Eugenia Antzokia eta Gran Kursaal kasinoa daude, besteak beste.